




GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Mistoa (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)



MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzetak, ARALAR Taldeko bozeramalea, Batzar Nagusietako araudiari jarraikiz, pinadietako beldarra tratatzeari buruzko Ez Aaruzko proposamena aurkezten du Landa Garapeneko batzordean eztabaidatua izan dadin

ZIOA

Gure lurraldean, pinadiak jasaten duten beldarra tratatzeko eta ekiditeko Dimilin izeneko produktu kimikoa erabiltzen da olioarekin nahastuz. Foru Aldundiak tratamendu hau, abuztu eta irailaren bueltan egiten du, urte bakóitzean, lurraldeko zati bati soilik emanez tratamendua, eta urtero zatiak txandakatuz.

Jakineko da, Dimilin produktua kutsakorra dela ingurumenaren ikuspegitik, eta kalteak eragin ditzakeela, ur potzuetan, ustiapen ekologikoetan, eta ingurumen aldetik sentsibiltate handia duten guneetan.

Horregatik guztiarengatik, Aralarren ustez egokiagoa izango litzateke isurrite hau hain kutsakorrak izan ez daitekeen beste produktu batekin tratatzea, bereziki sentsibiltate handiko guneak kontuan izanez.

EZ ARAUZKO PROPOSAMENA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek dei egiten diote Foru Aldundiari:

- 1.-Pinadietako isurritea den beldarra tratatzerako orduan, 2006ko kanpainatik aurrera, berau barne, eremu osoan Dimilinarekin ordez Bacillus Thuringiensis erabiltzea.
- 2.- Tratamendua burutu eta gero Foru Aldundiaren teknikariek, sentsibiltate handiko guneetako (ustiapen ekologikoak, ur putzuak, parke naturalak) egoeraren jarraipena egin dezaten, laginak hartuz eta aztertuz, ziurtasun osoa izateko ez dela kutsadurarik sortu.

Donostian 2006ko martxoak 27an

Rebeka Ubera Aranzeta
ARALAR BATZARKIDE TALDEA